

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 28a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Bertsolariak xaltoaren bila** • Nafarroako bertsolari gazteen sarietak Atarrabian eta Lesakan.

**Beatriz Martxueta** • Herrialdeko gazteen ispilu izan nahirik.

• JAGOBA MANTEROLA



## Baztan-Bortzirietako telebista bi proiekturen atakan

Xaloa Elkartek eta Ttipi-ttapa Fundazioak aurkeztutako telebista proiektuek mugimendua sortu dute eskualdean. Hasieran batera zihoazen, baina bakoitzak bere bidea hartu du. Nolanahi ere, erakundeek proiektu bakarra lagunduko dutela diote.



# Atarrabia • Bertsolari gazteak Xaltoaren bila

Nafarroako bertsolari gazteen kanporaketak egingen dira Atarrabian eta Lesakan

**Zortziko Ttikia**  
Nafarroako bertsolari gazteen elkarteak haiei bideraturiko Xalto sariak berreskuratu du, urtebetez antolatu gabe egon ondoren. Hemezortzi bertsolari lehiatuko dira gaur eta bihar Atarrabian eta Lesakan, Goizuetako finalerako sei txartelen bila.

**O**RAIN LAU URTE, 1993AN SORTU zuen Zortziko Ttikia elkarteak Xalto sariak, Nafarroako bertsolari gazteei bederatua. Hiru urtez antolatu ondoren, iaz egin gabe gelditu zen hondarrerako, baina aurten sariketari eutsi nahi izan diote. Irailean Zortziko Ttikia elkarteak hartutako erabakiaren ildotik, bertsolari gazteei (ezagunak zein ezezagunak) saio gehiago eskaintzeko helburua du sariketak. Bi taldetan banaturik, hemezortzi bertsolari ariko dira kantuan. Urtetik urtera sariketako sistema aldatu da txapelketan, eta aurten, bertsolari gazteei lana erraztu arren, afalondan egingo dira saio guztiak, baita finala ere.

Gaurko saioa Atarrabiako Etxebeltza elkartearen eginen da. Arratseko 21:00etan hasiko da afaria, eta ondotik kantatuko du-



Estitxu Fernandezek herritarren babesean kantatuko du bihar, Lesakan. • JOXE LACALLE

te bertsolariak. Bertsolari ezagunak ariko dira kantuan, guztiak Nafarroako eta Iparraldeko bertso eskoletan dabilzanak. Gaurko taldean Nafarroako txapelketan taularatutako lau bertsolari ariko dira: Mikel Altzuart baztandarra, Ekintza Landa iruinsemea, Iñigo Olaetxea lesakarra eta Oskar Estanga gaintzarra. Horiakin batera, Josu Etxanobe arbizuarra, Iñigo Ibarra araitzarra, Erika La-

goma lesakarra, Julen Zelaieta beratarra eta Ortzi hendaiarra ariko dira kantuan.

## Bihar Lesakan

Bihar, berriz, Lesakako Arranon izanen da saioa. Bertze bederatzi bertsolari elkartuko dira kantuan. Entzuleentzat ezagunak diren Estitxu Fernandez lesakarrarekin, Nerea Bruño atarrabiarrarekin eta Xabier Legarreta Arano-

koarekin batera ariko dira Imanol Lopez, Ekhine Etxepeleku, Alaitz Rekondo eta Xabier Terreros (eskolarteko azken txapelduna) lesakarrak, Jaione Otxandorena sunbildarra eta Amets Arzallus hendaiarra.

Saio batean zein bertzean, ofiziotan bina bertso abestu beharko dituzte zortziko nagusian, eta beste bina zortziko ttikian. Kartzelako lanean, zortziko ttikian bukaera emana bertso bat eta gai bati bertze bat kantatu beharko diote. Finalean, aldiz, zortziko handian ofiziotan hiruna bertso abestu beharko dituzte, puntu bat zortziko ttikian, bost bertso hamarrekotik, gai librean hirunaka lehiatuko dira eta bakarka bertze bi bertso kantatuko dituzte. Saio bakoitzean puntutan lehena denak zuzenean lortuko du Goizuetan datorren ortziralean jokatu den finalerako txartela. Gainerako lau ki-

deak puntuazioaren arabera aukeratu dira. Xalto sariketako bertsolari gazteak biltzen dituen arren, guzti-guztiak ere ezin dute parte hartu. Hala, Estitxu Arozenak bi aldiz irabazi duenez aurrerantzean ezingo du Xalto sariketako kantatu, eta Xabier Silveirak ere, nahiz eta behin lortu duen txapela, egungo Nafarroako txapelduna denez ez du parte hartuko. Neurriekin, hasi berriei aukera gehiago eman nahi zaizkie, lagun arteko giroan.

→ Jon Abril

## Bera

Bera eta Sara arteko mugalarreak berrituko dira igandean

**B**ERA ETA SARA ARTEKO mugan sortzen diren arazo eta lur banaketak zehazteko bi udalerriek sinatzen dituzten mugalarreak edo fazeriak igandean honetan berrituko dira. Azkeneko aldiz 1990. urtean berritu zituzten bi udalerriek. Ekitaldi honen bidez, Berako zein Sarako nekazari eta artzainek zenbait lur elkarbanatu ahal izanen dituzte, eta, era berean, basoen ustiapenean eta lur komunal horien lanketan baldintza berak izango dituzte. Ekitaldia eguerdiko 11:00etan hasiko da. Okasiorako, Lamixine Bat Berako antzerki taldeko kideek interpretazio tiki bat egingen dute 36. mugarrian bertan, bi herrietako auzapezek mugalarreak berrituko dituztelako konpromezua. Mahai horren erdian dago aipatu mugarri hori, eta Iparraldeko zein Nafarroako bi herrien arteko loturan lekuko da. Antzerki taldearen eta alkateen sinaduraren ostean, bi udalbatzarrek bazkaltzera elkartuko dira.

Berako Udalak antzeko hitzarmena du Biriaturekin. Haiekin azken aldiz 1991n berritu zuten mugalarreetako akordioa. Berak Lapurdiko bertze bi herriekin egiten du muga, Azkain eta Urruñarekin, baina haiekin, aldiz, ez du gisa honetako akordiorik sinatzen.

→ Jon Abril:

## bidean begi

MAITE URKIA



**E**gun asko ez direla, telebistan gaueko albistegian agertu ziren irudi batzuek barmeko hari mehe horietako bat ukitu zidaten. Egia esan, ez ziren inoiz ikusi gabeak eta ez zen uholde edo lurrikara ikaragarriak agertzen, baizik eta poliziaren furgoneta zuri batean zeramatzen bi mutil gazte. Nire begiak, hala ere, ez ziren haiengan soilik pausatuta; espaloian, bakarrik, familiakoengandik urrundua, ziurrenik ere gazte haietako baten hamabost bat urteko anaia gaztea izango zena ikusi nuen, besoa erdi altxatua, ahots urduri eta tristeaz anaiari izenez deitzen ziola agur egiten.

## Mazedonia

Irudiak zirrara eta pena sortu zidan, pena bai barrena zeramatzenagatik eta baita mutiko harengatik ere, eta pentsatu nuen errazegi beroarazten direla grina bizien adinean daudenak, behin baino gehiagotan ia zer funts duen ere erdi lainopean dagoen helburuaren izenean. Izan ere, lehenago, herri honetan euskaldun petoak baizik bizi ez ginelako ustea genuen batzuk, inozoak gu, baina haiako batean bezala, laster helduko diren Gabonetako janari ugarien ondoren atera ohi den mazedoniaren antzekoa dela herri hau, anitza, txarrerako eta onerako, baina anitza. Alegia, euskaldun sentitzen garenok baratzearen alde bat

hartzen duen porru saila garela, baina badirela letxugak, azak, azenarioak, erremolatxak, tomateak... eta horregatik ezinbestekoa dela irudi hori ere begien bistatik ez galtzea, horren araberrako mirariren bat asma dezagun ahalik eta euskaldunena litzatekeen xoko zabal batean bizi nahi genukeenontzat.

Eta bakarren bati irudituko zaio aspergarria dela oraindik ere kontu hauetaz jardutea, eta egia da, baina zoritxarrez horixe dugu pareparean. Bizkitartean, belar saldaren bat prestatu dugu euskaldun izateko gogoaren maxkaldietarako.

Sakana

Bierrik elkarteko bazkide kanpaina abian da

SAKANAN EUSKAL KOMUNIKABI-deak sortu eta sustatzeko helburuarekin jaio zen Bierrik elkarteak bazkide berriak lortzeko kanpaina abian jarri du. Helburu horrekin buru-belarri lanean ari dira eskualdeko lau lagun. Dagoeneko Sakanako 1.000 lagun inguruk jaso dute bazkide izateko eskutitza, baina karta jaso ez duten lagunek eta arlo honetan lan egin nahi duen ororentzat irekia dago elkarteko bazkide izatea. Bazkide berriek urteko kuota bat ordaindu behar dute: lanean ari direnek 6.000 pezeta eta langabetu eta ikasleek 3.000 pezeta urtean. Bierrik elkarte 1994ko uztailean sortu zen. Geroztik Sakanan euskal komunikabideen alorrean lanean ari da. Elkarte hau euskal kulturaren aldeko lagunek osatzen dute, euskal komunikabideak sortu eta euskal kultura sustatzen. Proiektu erraldoi honen barruan Sakanako hilabetekaria, Guaixe aldizkaria koka dezakegu. Aurki gainera, abenduan, hiru urte beteko ditu. Sakanako kontuak euskaraz agertzen ditu argitalpenak. Urtetik urtera irakurle kopurua handitzen doa eta poliki-poliki gure eskualdean sustraitzen ari da. Hala eta guztiz ere, Bierrik elkarteak hainbat proiektu burutzeke dauzka, hala nola euskarazko irratia proiektua eta Sakanako euskalkiei buruzko ikerketa lan sako- na burutzea.

→ Irene Arrizurieta

# Lizarra • San Andres feriak eginen dira bihar eta etzi

Santiago plazan ohiko ganadu feria izanen da igande goizean eta arratsaldean

**B**IHARTIK AITZINA ZERIKUSI ANITZ izanen da Lizarrako hainbat txokotan, San Andres feriatako prestatu den egitarauaren barruan. Ekintzen artean, nola ez, Santiago plazako ezkien babespean eginen den ohiko ganadu feria da aipagarria. Bertan, goizez eta arratsalde, ikusteko eta saltzeko izanen dira zaldi, moxal, behor eta astoak, besteak beste.


Urtero legez, udazkenak zuhaitz adarretatik hosto kopuru ugaria jaurti duenean eta dagoeneko lurrean orbela ageri denean Lizarrako feriak hurbil dauden seinale da. Ferietako egitaraua bihar hasiko da Foruen Plazan eginen den herri hamaiketakoarekin. Lizarrako Merkatarien El-

karteak antolatu du, hainbat elkarte gastronomikoren laguntzarekin. Arratsaldean, lehergailu japoniarrak jaurti ondoren, herri kirolen ikuskizuna izanen da Zurgai herri kirol taldearen eskutik, eta II. Ardo Dastatzea eginen da Foruen Plazako zerbitzu anitzetako aretoan. Arratseko 20:00etan, aldiz, Japoniaren Gaua deritzon IV. bilgune kulturala eginen da, Julian Romano musika eskolan.

Igandean ere izanen da zer egirik. Goizeko 08:00etan herria dianek esnatuko dute, dultzainero eta txistularien musikarekin. Gero, azitenda feria eginen da Santiago plazan. Foruenean, berriz, artisauen eta Lizarrako produktuen erakusketa izanen da. Bertan 70 artisauk baino gehiagok

hartuko dute parte goizeko 09:00etatik arratsaldeko 14:00etara zabalduko den erakusketan. Egurdiko 11:30etan ferian egiten den aurreneko Euskal Herriko Gazta Lehiaketa izanen da, Idiazabal jatorri izenarekin. Ordu horretan, Igarri txaragak kalejira eginen du. Azkenean, arratsaldeko 17:30etatik aitzina zale eta profesionalen pilota partiduak jokatuko dira Lizarra pilotalekuan. Bertetik, erran beharra dago larunbatean eta igandean abeltzaintza hornitzeko III. material erakusketa eginen dela Oncineda estalkian. Alorreko 70 enpresa baino gehiago bilduko dira.

→ Kristina Berasain



Ganaduzaleak zaldi ederren bila hurbilduko dira feriarat etzi.

KRISTINA BERASAIN



## herri aldizkariak

Edume Elizondo

### Belateko tunelak

Belateko mendateko errepide berria zabalduko dute gaur. Hori dela eta, Belateko tunelak eskaini die **Ttipi-ttapa** aldizkari azken zerbakiak Asier Gogorzak idatzitako erreportaia nagusia. «Belateko proiektu erraldoia errealtate bihurtua ikusiko dugu azkenik. Ekipamendua kontuan hartu gabe, 4.000 milioi inguru erabili ditu Nafarroako Gobernuak Almandoz eta Belateko tunelak egiten, aurreikusitakoa baino %30 gehiago. Osotara, Arraizko bentak eta Zozaiak arteko 17,5 kilometrotako tartea moldatzea 10.000 milioi pezeta (400 milioi libera) kostatu da.»

«Aurreikusitakoa baino urte eta erdi gehiago luzatu diren obra hauei esker, dezentente hobetuko da Iruñea eta gure eskualdearen arteko komunikazioa, nahiz eta oraindik ere hemengo errepide gehienek egoera penagarrian segitzen duten. Gainera, pentsatzekoa da tunelak irekitzen dituztenean trafiko gehiago izanen dela Iruñea eta Irun arteko bidean, Leizarango autobiatik joaten ziren auto eta kamioi aunitz hemendik pasatuko baita, eta gaur egun motela den trafikoa are astunagoa bihurtuko dela. Bera-Behobia bide zatia, errate batera, ia 7.000 ibilgailuk egiten dute egunean, haie-

tako %20 inguru kamioiak, eta errepidea moldatzeko asmoa badu ere, oraindik ez du proiektu finkorik Nafarroako Gobernuak. Hori dela eta beren kezka agertu dute hainbatetan eskualdeko alkateek.»

**Ttipi-ttapa** hamabostekariko artikulua nabarmentzen duenez, «argitze eta segurtasun sistema aitzindariak erabili dituzte tunelak hornitzeko, baina halere zenbait beltzune ageri da horien inguruan. Hala nola, lurrazpitik doan 4 kilometro baino gehiagoko ibilbidean karril bakarria izatea norabide bakoitzean, eta kamioiak ezin aitzindu izanen direla erran nahi du horrek.»

Donesaturdiko oilarra lumatzen  
Juan Kruz Lakasta

### Alfredo

Alfredok 32 urte ditu, Sanduzelaikoa da, eta 14 urte daramatza Landabenen kotxeak egiten. Gaztetan ikasle ona izan zen. Hezkuntza Ministerioak espedienterik hoberenari urtero ematen dion saria ez zuen jaso sekula, baina aprobatur beharreko guztia aprobatur zuten, eta neke handiegirik gabe, gainera. Irakasleek haren gurasoei beti esaten zieten egin zezakeena baino askoz gutxiago egiten zuela. Mutil azkarra zen, baina ikasketek aspertu egiten zuten.

Hamazazpi urterekin, hasi zen denbora gehiago pasatzen ilargi tabernan La Granja institutuan baino. Etxean ez zuten deus jakin ikasturte amaierara arte, notak erakutsi zituen arte. Suspentsoz beteriko agiria ez zen aitaren gustukoa izan. Erabaki zuen semeak ez bazuen ikasi nahi, lan egin beharko zuela. Aitak Landabenen lan egiten zuen, eta UGTkoa zen, eta ez zuen semea fabrika sartzeko inolako arazorik izan.

Alfredok, berriz, zailtasun handiak izan zituen egoera berrira ohitzeko. Itogarria egiten zitzaien katean egunero zortzi ordu ematea; hamaiketakoaren orduan lankideak patxarara edaten eta purua erretzen ikustea; ostiraleko azken txandan jendea barbakoarekin, saiheskiekin eta ardo botilekin pabilioitan sartzen ikustea; ordu extrak zirela kausa muntatzen ziren iskanbilak... Itota sentitzen zen.

Alfredok ezin zuen imajinatu garai haiek malenkoniatsu gogoratuko zituenik. Alta, joan den egunean sindikatu etako ordezkariak Poloa eta Lupia egin ahal izateko langileei sakrifizio gehiago eskatu zizkietelarik, garai haiek etorri zitzaizkion burura, eta malenkonia sentitu zuen. «Dagoeneko ez dago patxararik, ez barbakoarik, ez eta ordu extrem kontrako mugidari ere... eta sakrifizio gehiago eskatzen dizkigute», pentsatu zuen, eta malko bat ixuri zuen, ez malenkoniagatik, baizik eta egungo egoeragatik, biharko egoeragatik. Itogarria, zinez. ●



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Iturriagaren eta Samaniegoren zinak eta minak

Sobera entzuna dateke Iturriagak irakaskuntzan egin zuen lana, Hernanin, Kaietano anaiarekin eta Manuel Larrarte organojolearekin ireki zuen eskolan burutua



**E**z dira ezagunak Agustin Ignazio Maria apez alegileak bere lehenbiziko abizen erdeinatzeke izan zitzakeen arrazoiak. Seguru gaude, alta, Yon Juaristi Linacerok -berak proposatu ortografia berriari jarraikiz- malenkonia ugari ikus lezakeela Autoletik etorrria bide zen Pascual deituraren ezabapenean. Nahiz bilbotarrak bere floka malenkonia-tsuan alpatzen ez duen, arras seguru gaude Euskal Herria, Euzkadi arana-goiritarraren gainetik, hobesten dugun 25.000 etazaleekin kokatuko lukeela hernaniarra -ikus bigarren edizioaren 202 orrialdea-. Finean floka bluien gaineko kontu zaharrak dirudite haboro adimen ahigabeko pentsalarri baten arrazoi funts-garriak baino, bilbotarrak baitaiatu xingola hitsak baino hots. Aitak jaraunspen utzita-ko lehenbiziko deiturari erakutsi aiherra leuntzekotan edo, haren bigarrenari eutsi zion, eta amaren Ugalde-Amite sarobe bikotearen gainetik Iturriaga hobetsi zuen bere buruaren ezagutarazle hauta betiko. Hemezortzigarren gizaldian sortu izanak, baita liberala izateak ere, nolaz edo halaz, Juaristi bezalako bihotz erreko Unamuno txipik egiten ohi duten oldar eruditoetatik babestu bide zuten gure hernaniar xaloa. Gaitzerdi ordea!

Sobera entzuna dateke Iturriagak irakaskuntzan egin zuen lana, Hernanin, Kaietano anaiarekin eta Manuel Larrarte organojolearekin ireki zuen eskolan burutua alegia. Argien garaiko pedagogia zein gaitegi berritzaileei berak ondu idazkiak gehitu behar, eta hauen guztien artean, Donostiako Barojarenean 1842.ean ateratako *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* dugu gure intereskoa. Honetan, besteak beste, Samaniegoren 55 alegiaren itzulpena eskeini zigun. Ez

zuen, naski, bulta luzea igaro behar bekaizti erretxinen salaketa iristeko: *«En una palabra, y sin pasión, éste ha echado a perder a todos con su viciada filosofía, por cuanto su maestro seductor los tiene imbuídos en la falsa y perniciosa doctrina del infame Voltaire y de los protestantes»*. 1823.erako jada eskola itxi zioten, eta lehenbiziko karlistadaren ostean, ihes eginda genuen Iturriaga, Hondarribian, Zestoan eta Milafrangako Larralde gazteluan, Arkangoitzeko markisaren babespean. 1841.ean sorterrira itzuli zenean, sobera asaldatu ziren herikideak, eta Iruñeko apezpikuari lar izioturik idatzi zioten: *«Se ha presentado aquí ese hereje consumado con el descaro que acostumbra los herejes y según parece con todas las licencias de su ilma. para predicar y confesar»*.

Arabarrak ere, giputzak egin antzera, aitak utzi lehenbiziko abizena baztertu egin zuen, huraxe, sendiaren ohiko aztura zela onartu behar baden ere. Hezkuntza arloan, arras lotuta zetxekion Bergaran Peñafloridakoak eta ireki ikastetxeari, eta 1782.etik, eskolaren bigarren zuzendaria izan zen hain zuzen ere. Edozein modutan ere,

1793.eko frantsestealdia bukatuta, eta elkartearen langintzak arrapiztu nahi izan zirenean, elkarkide gehien ustearen kontra, Samaniegok Bergarako ikastetxea ez zabaltea eta herri gehienetan dohaineko eskolak ezartzeari hobekeko zeritzon. Aitzitik, ez zen horrela gertatu. Bestalde, konbentzioarena eta gero, ilunbe aro bat hasi zen Espainian iraultzaren beldurrez, inkisizioari, garaietan zuen indar itzelaren eta beldurgarriaren puska ederra berreskuratzeko baliagarri zitzaiona. Samaniego ere, honen chizakia izan zen. Erakunde sainduak Bilboko Jose Antonio Epaltza merkataria hartu zuten, debekaturik zeuden liburuak bazekartzan Iparraldetik. Berarentzat propio zeramanarekin batera beste hiru ale ere bazituen, Bergarako ikastetxerako, Fernando Landetxo batentzat eta gure biasteritarrarentzat. Liburuak Cordorceten *Espainiarren aholkua* zen, eta igoriea Donibane-Lohizuneko Ducos izeneko medikua ba omen zen. Orduko horretan, elizaren gestapo liburuak jasotzearekin konformatu zen. Alabaina, 1793.eko martxoaren 11n, Bilboko Jose Maria Murga Barreda handikiak salatu zuen debekatutako liburuak eukitzeagatik, eta horrekin, bueltaka hasiko zen pilota geldiezin agitu zen, geroago eta salaketa undatsago, geroago eta kakazte-nago. Egoera zinez larria izatera iritsi zenean, Madrileria joanik, Eugenio Llaguno Amirola justizia ministro berriarekin hitz egin zuen, bestalde, laguna eta arabarra zena, eta handik gutxira, inkisizidore nagusia zen Manuel Abad Sierrak Samaniegorena artxibatzea agindu zuen. Nonbait, baten batzuk, jinkoangandik gertuago bizi dira beste batzuk baino.



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Hamalau mila Nikolasak

**N**IKOLAS EGIA, IRUÑEKO gotzai zela, Peraltako Pierres gaizto hark 1469an Tafallan akatu zuena; Leitzako 'Nikolase-ne' etxeari izena eman zion Nikolas Olaetxea aresoarra; Orexan hiruxki jaiotzen Nikolas Ormaetxea kaskagor sonatu hura; Nikolas Buldain, Leitzako abade eta Berutako 'Jainko'ren seme izandua; orain hilberri den Nikolas Gastearena mutiltzar ezkurarra, hamaika musaldi nerekin eta besterekin 'Oyalde'n egina; basolanean ari zela arbola batek azpian lehertu zuen Nikolas Eskudero goizuetarra, mutikotan auzokide eta lagun bromoso aski izandua... Baditug gogoan franko, baina, ez hamalau milak.

Badirudi Nikolas santuagana-ko sineskera, Santiobideko merkatu eta hiri guneetan kokatu ziren frankoek sartu zutela gure artera; halaxe sortuak baitira Iruñeko, Estellako, Tuterako eta bestetako burgo eta elizak San Nikolasen itzalpean.

Iruñekoa eta aurrenekoa, badirudi Alfontso sortutako San Cernin burgoaren eragina apaltzeko Iruñeko apezpikuak berak sortu zuela 1129-71 urte bitartean. Eta belaxe, elizaren eta erregeren arteko espagatik, Santxo Azkarrak kizkali eginen zuen San Nikolasko burgo osoa. Izan ere, hamaika hamabi garren mendeetan, gure herriok, konkistatu ahalean, jatorri oso desberdineko jendearekin populatu baitzituzten erregeek; halanola, moroekin, arabiarrekin, frankoekin, eta batek daki zenbat gehiagorekin... eta jende arrotza bertakotzeko herriei foru eta pribilegio bereziak emanez gainera... Tokitan gelditzen da gure odol baskoi mitikoa!

Ordaz gerozkoak ditugu gure arteko Nikolas sorginak ere, baina, puskaz lehenagokoa zuten gaiztotzat joak? Zergatik argin, eta gauezko langile?... Gauza ederra izanen litzatekeela iduritzen zait, gure hamalau mila nikolasek azpian gordetzen duten misterioa pittin bat argitzea, sineskeria ergelez sorgin edo mito hutsetan utzi gabe.

siako zaindaria, mila sorginkeria bereganatuak zituen.

Eta menderen mendetako arrastoa, horra euskaldunon gogoenean oraindik HAMALAU MILLA NIKOLAS. Baditugu hamaika adibide, eta hona bat guztien eredu, Txirritaren iloba Jose Ramon Erauskini jasoa Antonio Zavalak:

*«(...) Gogoratzen naiz Txirritari entzun niola Ernanin bazala zubi zar-zar bat, Sorgin-zubia esaten ziotena. Zubi ura egiteko artu zuen kontratistak, ezin zuen bukatu esandako egunerako, eta esan zion bere lagun batek:*

*-Gaizkiñak ekarri itzazu, eta aieak egingo dizute zubia. Frantzian badaude eta ollo baten diruarekin erosko dituzu. (...) ala egin zuten tratua. (...) Eskuz esku ekartzen zuten arria, Frantziako mugan dagon Naparroko mendi batetik, batek besteri esanez:*

*-Alba Nikolas! Benga Nikolas! Bota Nikolas! Artu Nikolas! Eldu Nikolas! Jarri Nikolas!*

*Egundoko martxa zeraman zubi orrek, eta orduan entzun zion kontratista arrek nola elkarri esaten zioten:*

*-Ez gerala, ez gerala esaten dute, bañan amalau mila Nikolas emen gaituk orratik!»*

*(...) atera du saskitik ollarra, ego azpian axkure eginez, or jo dio kukurruku. Orduan, zubia zegoen bezela utzita alde egin dute danak (...) eta zubi ura etzan behere bukatu.*

*Andik egun batzutara billatu zuten Frantziako mugan len etzan arrobi aundi bat, eta Sorgin-arrobi deitu zioten.»*

Entsegu eder baterako gaia litzake sorgin kontu hori. Zer jende kasta gordetzen da Nikolas horien azpian? Frankoen izenpeko artisau edo merkataritza jitoak, agotak, higanotak?... Zergatik ageri dira bereiz sinalatuak eta gaiztotzat joak? Zergatik argin, eta gauezko langile?... Gauza ederra izanen litzatekeela iduritzen zait, gure hamalau mila nikolasek azpian gordetzen duten misterioa pittin bat argitzea, sineskeria ergelez sorgin edo mito hutsetan utzi gabe.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Haize berriak betiko oihartzuna

**S**ARASATE ALDEAN EZ DA GIRO, DENA ZILEGI DA, FAKZIOEN ARTEKO LISKARREK fikzioa, era guztietakoa fikzioa, gaintitzen dute. Antza denez, hautatu berriek molde berdinean joko dituzte *kapritxo* gogoangarriak. Haize berriak betiko oihartzuna dakar. Donapea gogoan maiz etortzen zait negarra begietara.

# Beatriz Bertxueta

Nafarroako Gazte Kontseiluko presidentea

## «Nafarroako gazteen ispilu izan nahi genuke»

**Beatriz Martxueta Nafarroako Gazte Kontseiluko (NGK) presidente hautatu zuten joan den larunbatean, hamargarren batzarrean. Martxuetak, batez ere, kontseilua osatzen duten 89 elkarten partehartzea bultzatu nahi du, eta ahal den neurrian kopuru hori handitu.**

**P**RESIDENTE HAUTATU DUTENetik, bileraz bilera dabil Beatriz Martxueta. Oraindik ez omen da karguaz erabat jabetu. Bilera baten erdian atera eta sosegua hartzeko betarik izan gabe, elkarriketaren itaunei erantzun zien, prestu.

■ **Datorren bi urteetarako Nafarroako Gazte Kontseiluko presidente hautatu zaituzte. Nola hartu duzu kargua?**

Ikasle Abertzaleak taldeko partaide naiz, eta taldea Nafarroako Gazte Kontseiluan sartua dago. Orain dela bi urte batzar iraunkorren egonak ziren Ikasle Abertzaleetako bi kide. Esperientziak lana gertuagotik ikusteko aukera eman zigun. Kontseiluko lana ikusita nabaritu genuen bertan egotea oso garrantzitsua zela herrialdeko gazteentzat eta hor egin genezakeen lana garrantzitsua eta polita izan zitekeela.

■ **Aurrerantzean, Kontseiluak zer erronka eta helburu izango ditu?**

Elkarteen partehartzea bultzatu nahi genuke. Era berean, orain 89 elkarte dauden arren, kopuru hori handitu nahi dugu. Kontseilua Nafarroako gizartearen, eta, batez ere, gazteen ispilua izatea nahi genuke. Elkarte kopurua ere handitu beharko litzateke gazte gehiagoren iritzia izateko. Gazte Kontseilua plurala da, baina hori hobetu daiteke.

■ **Hautaketaren ondotik, Espainiako eta Euskal Autonomia**

**Erkidegoko (EAE) gazte kontseiluekin harremanak hobetu nahi dituzuela azpimarratu zenuten. Nolakoak dira egun?**

Harremanak egun nahiko geldi daude. Dena den, horren inguruan oraindik hitz egin behar dugu. Hala ere, gure asmoetako bat harreman horiek berpiztea da, bi kontseilu horiekin erlazioak berpiztea garrantzitsua delako.

■ **EAEko Gazte Kontseiluaren bestelako harreman berezirik izateko asmorik baduzue?**

Hori hitz egin beharko da. Oraindik hasi besterik ez gara egin, eta aurrerantzean ditugun bileretan erabakiko da zer egin eta nola jokatu.

■ **Joan den urtean Gobernutik jasotzen duzuen dirulaguntza erdira jaitsi zen. Duela bi urte 14 milioi pezeta jaso zenituzten (560.000 libera),**

**eta iragan urtean 6,3 milioi pezeta. Harremanak berriro planteatzeko asmorik baduzue?**

Lehenengo pausoa aurrekontua negoziatzea izanen da. Harremanei dagokienez, gure asmoa harremanetan jarraitzea da.

■ **UPNk PSNren sostenguari agintzen du Gobernuari. Bi alderdi horiek ez dute zuekin bilerarik egin nahi izan. Zuen jarrera zein izanen da?**

Nafarroako Kontseiluak 20 milioi pezetako aurrekontua du

datorren ikasturterako (80.000 libera), eta uste guztien arabera Gobernuak 6,4 milioi pezetako dirulaguntza emanen digu. Gazte Kontseiluak nahiko harreman izan ditu Administrazioarekin Gobernuak gazteekiko daraman politikaz hitz egiteko eta iritzia bateratzeko. Dena den, UPNk eta PSNk ez dute deus jakin nahi izan.

■ **Nahi adina dirulaguntza ez lortzeak asko baldintzatzen du zuen lana?**

Gure asmoa da beste finantzaketa bide eta iturri batzuk aurkitzea. Gaztedia, Kirola, Hezkuntza eta Kultura departamentuaz gain, beste sailekin ere lan egin nahi genuke. Iturri pribatuak ere ez ditugu baztertzen. Gobernuak eskaintzen digun dirua kopuru eskasa da eta gure lana baldintzatzen du.

■ **Kontseiluan 89 elkarte daude. Nafarroako gazte elkarte osasuna ona den seinale?**

Gizartearen dauden hainbat arazo konpontzeko gogoia dagoen arren, asko dago egiteko, eta, batez ere, gazteei begira. Gaztediaren Kontseiluan hori sumatzen da, eta ez dut uste gure din-

Beatriz Martxuetak Daniel Saralegiren lekukoa hartu du NGKn. Datorren bi urteetan ilusioz eta gogoz lan egiteko hartu du kargua. Ikasle Abertzaleetako kide izanik, badaki zer den gazte elkarteetan lan egitea. Beraz, aurretik lortutako esperientziak Gazte Kontseiluko lana ongi egiteko balioko diola uste du.

Beatriz iruindarra da, 21 urte ditu eta Navarra Villoslada institutuan batxilergoa egin ondotik, egun Zuzenbideko laugarren maila ikasten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Egundak aurkitzea zaila dela badaki arren, ikasketak bukatu eta gero zuzenbidean aritzea gustatuko litzaike.

Ikasturte honetan unibertsitateko ikasketak bukatzeko asmoa du, eta hori dela eta, utzi egingo du Ikasle Abertzaleak taldea. Gazte elkarteetan aritzeaz gain, Duguna dantza taldeko kide izan zen joan den urtea arte. Irakurle amorratua, orain burubelarri dabil Patxi Zabaletaren *Arian Ari* irakurtzen.

mika geldoa denik. Hemen 89 elkarte gaude, eta kopuru polita da. Hala ere, handitu egin behar dela uste dut eta horretan saiaturiko gara.

■ **Barne funtzionamenduari dagokionez, zer gaitan du egiteko gehien?**

Kontseiluak zortz. sail ditu, eta osasunaz eta aisiaz arduratzen direnak dabilza hobekien. Nolanahi ere, guztiak berdindatu nahi ditugu, ingurugiroa eta lana, adibidez. Alorrek nahiko

geldituak daude eta batzar iraunkorren gogoia horiek berpiztea eta indartzea da.

■ **Nafarroako Gazte Kontseilua izanik ere, askotan zuen lana ez da gehiegi mugatzen Iruñera eta Iruñerria?**

Agi bai. Dena den, elkarte guztien artean lortu behar dugu herrialdera gure asmoak zabaltzea eta gure ekimena berri ematea.

→ Irene Arrizurieta

• LUIS AZANZA

soslaia

# Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 28a

## BEKARIO!

## ZALDI ERDA



## Nafar Kronika

Fermin Erbiti

### Manuel Turrillas

**E**NTZIERRORA GARAIZ HELTZeko GOIZ jaiki behar zuen Joxe Mari hura gogoratu behar dugu gaur, azaroak 28, uztaileko festa giroa lekutan egon arren. Halaber, egun aproposa da kontuan hartzeko mende hasierako Sanferminetan iruinsemeekin batera herrietatik etorritakoak ere protagonista izaten zirela ferian, tabernetan eta karriketan. Kantu bati esker dakigu horietako batek Udaletxe Plazan paratutako lehen semaforoari kasurik egin ez eta duro bat ordaindu behar izan ziola udaltzainari. Oberena peñakook ere, Sanferminetarako hilabete asko falta badira ere, gaur inoiz baino ozenago kanta genezake gurea peñarik alaiena dela, paregabea.

Manuel Turrillas barasoaindar iruinseme zendu berriari omenaldi berezia eskainiko zaio gaur arratsaldean Iruñeko Udaletxe plazan farol colorau hura zegoen toki berean eta hantxe hirriaren urrezko domina jasoko dute haren izenean musikoaren familiakoek.

Turrillasek mende hasierako Iruñea eta garai hartako festak ezaguturazi dizkigu gaur arte iraun duten kantu alaietan. Gaurko gazteriek nekez ulertuko ditu kantuotan maiz agertzen diren erreferentzia batzuk, Ezkabako txakolina eta farol colorau hura aspaldi desagertu baitziren, baina kantuak luze iraunen dute mende hasierako Iruñea tiki haren oroigarri.

Turrillasek berak musutruk egini-ko lan oparoak meritu handirik ez duela azpimarratu ohi zuen. Gehienon ustetan, aldiz, gaurkoa ongi merezitako omenaldia da. Sanferminetako musikaren egilea delako, kantu horiek, guk denok, urteko egunik alaietan abestu-oihukatu ditugulako, eta, bertalde, Turrillas zortziko, jota, biribilketa eta peñen kantuetan nafar guztiok batzeko gai izan delako. Lizarrako Nafarroa Oinezarako karrikaturiko diskoan euskaraz kantatu nahi izan zuen gizon xume bezain eskuzabalari, berandu bada ere, merezitako omenaldia eskainiko zaio non eta farol colorau hura zegoen toki berean. Joxe Mari ere ez da plazaik urrun ibiliko.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Benito Lertzundik kontzertua eskainiko du bihar, Mendialde Ikastetxean, 20:00etan.
- **Alzoain:** Artsaia aretoan Los Dinosaurios taldeak kontzertua emanen du gaur gauean, 23:30etan.
- **Elizondo:** PILT, Skalariak eta Larrua Truk taldeek kontzertua eskainiko dute Elizondoko Estalpean, bihar gaueko 22:00etan. Sarrera: 800 pezeta.
- **Bakalku:** Ganbara taldeak kantatuko du herriko frontoian 21:00etan.
- **Iruñea:** The Corrs taldeak joko du etzi, 20:00etan, Anaitasuna pabilioian. Sarrera 3.000 pezetakoa da.
- **Iruñea:** Sarasate orkestrak kontzertua eskainiko du, gaur, 11:00etan, San Saturnino elizan.
- **Burlata:** Gaur, 20:00etan, Txomin eta Urbil Artolaren kontzertua izanen da Hilarion Eslaba musika eskolan.

### ANTZERKIA

- **Burlata:** Balada tierna de un gamusino aurkeztuko du T'Ombigo Teatrok, etzi, 19:00etan, Hilarion Eslava musika eskolan.
- **Burlata:** Datorren asteazkenean, 16:30etan eta 18:00etan Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren emanaldia izanen da Hilarion Eslava Eskolan.
- **Iruñea:** Irubide antzerki taillerak las Brujas de Macbeth antzeztuko du datorren asteartean, Irubide Institutuko Areto Nagusian, 18:00etan.
- **Iruñea:** Tricicle taldeak Entretres lana aurkeztuko du gaur, bihar eta etzi Gaiarre Antzokian. Gaurko emanaldia 20:30etan izanen da, biharko biak 20:00etan eta 22:30etan eta etziko 20:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Jimena Saiterren eskultura erakusketa gaurtik abenduaren 14ra bitartean zabalik dago.
- **Iruñea:** Antonio Laitaren lanak ikusteko aukera dago Azul galerian datorren abenduaren 7ra arte.

### BESTELAKOAK

- **Barañain:** Sahats euskaltegiak lokal berria inauguratuko du gaur arratsaldeko 19:30etan. Helbidea: Arana etorbidea, 2.
- **Bera:** Gaur arratsaldeko 19:00etan Kaxerna Aisialdi Taldeak antolatutako hitzal-

di tailerra izanen da. «Seme alabak arratsez ateratzen hasten direnean zer?» gaia landuko da Gure Txokoa elkartearen. Urtxintxa hezitzaile eskolako koordinatzailea eta soziologoa den Josune Mayor ariko da.

- **Erratzu:** Bertso afaria egingen da bihar, 21:00etan elkartearen. Bertsoan ariko dira Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña, Euskal Herriko Txapelketako lehen bi finalerdiak irabazi dituztenak.
- **Arbizu:** Aldabide elkartearen bertso afaria ospatuko da bihar, 21:30etan, Jexux Mari Irazu eta Iñaki Murua bertsolariekin.

► **Iruñea:** Askagintzako lokalean (Mendigorria 12, behea) disetnu drogen inguruko hitzaldia eskainiko da datorren astelehenean, 20:00etan.

► **Berriozar:** Eguzki taldeko Alberto Friasek Euskal Herria ekologiatik hitzaldia eskainiko du gaur 19:30etan Kultur Etxean.

► **Iruñea:** Ortazar folklore taldeak ehaziri lana ikasteko ikastaroa antolatu du. Ortazarren ikastaroa abendua, urtarrila eta otsailen izango da. Izena emateko 223107 telefonora deitu behar da edo folklore taldeak Descalzos 65 behean duen egoitzara hurbildu.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Zoragarria haiz,  
baita hire  
lepokoa ere.  
Halere,  
betilun hago.  
Kaso egin,  
ez dezala  
fortunak jakin,  
bertzenaz  
emanen din  
zertaz  
negar egin.

LULUPE  
EDERGARRIAK